

2020



okendo kalea 9

DONOSTIAKO
EMAKUMEEN ETXEA

progra- mazioa

urtarrietik uztaiera



DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Emakumeen Etxea da gune bat, non emakume ugari eta askotarikoak biltzen garen, prestakuntza jasotzeko eta gogoeta nahiz ekintzak egiteko.

Bertan, zerbitzuak, tailerrak, taldeak eta jarduerak eskaintzen ditugu 2010az geroztik, emakumeen bizi-modua hobetzeko, eta berdintasun handiagoko gizarte bat lortzeko.

Emakumeen elkarte mugimendua eratu da Emakumeen Etxea Elkartearen inguruan; hain zuzen, etxeko jarduerak kudeatzeko eta dinamizatzeko helburuz. Denbora igaro ahala, Elkarteko bazkide aktiboek batzordeak eta lantaldeak sortzen joan dira, haien interesen arabera. Batzorde bakoitzak bere helburuak ditu, eta bazkideek batzorde guztietan har dezakete parte.

Kontuan hartu beharreko oharrak:

- **Ikastaroetan izen-ematea:** urtarrilaren 13tik 26ra egingo da.
Betetzen ez diren ikastaroen izen-emate epea, ikastaroa hasi arte luzatuko da.
- Izen-ematea Internet bidez egingo da honako web orrialdeetan:
www.donostiakoemakumeenetxea.com
www.donostia.eus/berdintasuna
Laguntza behar baduzu izena emateko, gerturatu zaitez Emakumeen Etxera.
- Ikastaro eta zerbitzu guztiak doakoak dira.
- Pertsona bakoitzak gehienez hiru ikastarotan eman ahal izango du izena.
- Zerbitzuetan hartutako hitzorduetara edo tailerretara aurrez abisatu gabe joaten ez direnek ezin izango dute zita berririk eskatu, edo ikastaro berrietan parte hartu, urtebeteko epean.
- Ikastaroa hasi eta gero utzi nahi dutenek, Etxeko koordinatzaileei jakinarazi beharko diete. Hiru saiotan kale egiten duenak -justifikatu gabe-, ezingo du ikastaro gehiagotan parte hartu urtebeteko epean.

TAILERRAK

Autodefentsa ikastaroak
Sexualitatea eta ikuspegi feministak
Osasun mentala ikuspegi feminista eta soziokulturaletik
Emakumeak eta zuzenbidea
Emakume filosofoen ondarea - *Emakumeak eta filosofia* -
Zientzia ona: ezinezkoa emakumerik gabe - *Emakumeak eta zientzia* -
Brikolajera

AHALDUNTZE TALDEAK

Autodefentsa feminista
Indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeak
Jatorri askotariko emakumeentzako kulturarteko gunea
Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze taldea
Antzerki laborategi feminista *
Memoriaren zirrikituak euskal literatura garaikidean *
Irakurle eskola feminista *
Ventaneras -La precuela *
Ventaneras *
Batukada feminista *
Xakea *
Ederlezi abesbatza *
Klowna *

ZERBITZUAK

Arreta eta bideraketa
Etxeko langileentzako aholkularitza
Aholkularitza juridikoa eta gizarte esku-hartzea
Lege aholkularitza
Gizarte aholkularitza
Norbanakoaren jabekuntzarako gunea
Aholkularitza laguntza taldea
Biluzik mundura
Igualate Ikasketak homologatzeko kanpainak
Ordenagailu eta Internet zerbitzua

AUTODEFENTSA IKASTAROAK

Ikasi nahi duzu eraso matxistei aurre egiten?
¿Kalean aske sentitu nahi duzu?
Uste duzu ezingo zarela defendatu?

Gaztelaniaz

(2 tailer. 11 ordukoa bakoitza)

1. tailerra martxoak 20 eta 21
2. tailerra ekainak 19 eta 20

Formatzailea: Isa Bernal



Euskaraz

(2 tailer)

1. tailerra

Egunak: martxoak 14, 21 y 28
Ordua: 10:00 - 14:00

2. tailerra intensiboa

Eguna : ekainak 20
ordua: 10:00-14:00
15:00-19:00

Formatzailea: Emagin

Antolatzailea: Donostiako Udala



TAILERRAK

SEXUALITATEA ETA IKUSPEGI FEMINISTAK

(9 saio)

Formatzailea: Irantzu Varela

Eguna: ostirala

Ordua: 18:00 - 20:00

Hasiera: otsailak 14

Amaiera: maiatzak 15

Hizkuntza: gaztelania



Tailer honek sexualitatearen eraikuntza feminista baterako tresnak eman nahi ditu. Nola ligatzen dugun, nola maitatzen dugun eta gure sexu harremanak nolakoak diren politikoa da; gure desira otzanduta dagoelako eta desobediencia ohetik pasatzen delako.

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkartea

OSASUN MENTALA IKUSPEGI FEMINISTA ETA SOZIOKULTURALETIK

(6 saio)

Formatzailea: Maria Zapata y Itxaso Martin

Eguna: osteguna

Ordua: 18:30 - 20:00

Hasiera: martxoak 5

Amaiera: apirilak 23

Hizkuntza: elebiduna

Osasun mentala dagokion testuinguruan aztertzea da ikastaro honen helburu nagusia. Horretarako, eta ikerketa feministek ematen dizkiguten tresnak erabiliz, osasun mentalaren ibilbide historiko bat proposatuko dugu. Saioetan agerian geratuko da unean uneko genero, gizarte eta kultura ereduak zeharo baldintzatzen dutela osasun mentalaren definizioa eta esperientzia. Kasu zehatzetatik abiatuta, honakoak izango ditugu hizpide: osasuna-gaixotasuna, biomedikuntza sistema, isiltasuna eta tabua, eta ondoezari aurre egiteko agentziak eta erresistentziak.



Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkartea

EMAKUMEAK ETA ZUZENBIDEA

(5 saio)

Formatzaileak: Juana Aranguren, Arantza Campos y María Victoria Iturralde

Eguna: astelehena

Ordua: 19:00 -20:30

Hasiera: otsailak 3

Amaiera: martxoak 2

Hizkuntza: gaztelania



emakumeak eta zuzenbidea

Bost saioko tailer honetan, oinarrizko kontzeptu batzuetara hurbilduko gara, hala nola “diskriminazioa”, “desberdintasuna”, “berdintasuna”, “ekintza positiboak”, eta abar. Halaber, estatuko eta EAEko legediaren egoera azalduko da zuzenbidearen arlo guztietan, eta auzitegietan nola aplikatzen den erakutsiko dugu. Azkenik, baloratuko dugu ea indarrean dagoen araudiak eta praktikak berdintasunezko errealitatean laguntzen duten edo, aitzitik, horren ordez statu quo mantentzeko balio duten.

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkarte

EMAKUME FILOSOFOEN ONDAREA

(10 saio)

Formatzailea: Marisa Hurtado

Eguna: astelehena

Ordua: 19:00 - 20:30

Hasiera: martxoak 23

Amaiera: ekainak 1

Hizkuntza: gaztelania

Filosofia emakumeentzako etsaitasunezko ingurunea izateari uztea da egin beharreko beste esfortzu handietako bat, eta horregatik, ahalegin berezi bat egitea dagokigu. Horretarako, gure aurretiko emakume filosofoak ezagutzen ahaleginduko gara, eta beraiei dagokien lekura itzultzen. Hau izango da, hain zuzen ere, gure tailerraren helburua: erakustea emakume hauek guztiak egin dutena, eta haien ondaretik ikastea.

emakumeak eta filosofia



Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkarte

ZIENTZIA ONA: EZINEZKOA EMAKUMERIK GABE

(2 saio)

Formatzailea: Marta Macho-Stadler

Eguna: astelehena

Ordua: 19:00 - 20:30

Hasiera: ekainak 8

Amaiera: ekainak 15

Hizkuntza: gaztelania



Zientzia giza jarduera bat da. Hori dela eta, ez dago aurreiritzietatik libre. Zientziaren "aktoreei" buruzko estereotipoek, erreferente femeninoen faltak eta kultura patriarkalak zientzia etorkizunerako aukera bat bezala baztertzeraz bultzatzen dituzte emakume asko. Benetan garrantzitsua al da arlo zientifiko-teknologikoetan emakume gehiagok lan egitea eta lidergoa izatea?

Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkarte

BRIKOLAJERA (11 saio)

Formatzailea: Carmen Melchor

Eguna: osteguna

Ordua: 18:30 - 20:30

Hasiera: otsailak 6

Amaiera: maiatza 14

Hizkuntza: gaztelania

Zulagailu bat erabiltzen ikasi nahi duzu? Zisterna bat konpontzen? Inguruan dituzun gauza askoren oinarriko konponketak edo hobekuntzak egiten? Bada, tailer hau zure gunea da. Orokorrean emakumeok, sozializazioak eraginda, lan horiei diegun beldurra kentzen ikasiko dugu eta,aldi berean, arlo horretan saltsan ibiltzen.



Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkarte



AHALDUNTZE TALDEAK

AUTODEFENTSA FEMINISTA

Formatzailea: Oihana Andueza

Eguna: ostirala

Ordua: 18:00-20:00

Hasiera: otsailak 21

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: euskara

Aurten Autodefentsa talde berri eta finko bat sortu nahi dugu Emakumeen Etxean, eta hauek izango dira gune horretan lortu nahi ditugun helburuak: emakumeok indarkeriarekiko ditugun bizipenak partekatu eta bildu; esperientzia ezberdinak partekatu eta eraso ezberdinak identifikatzeko gaitasuna landu; autodefentsatzat hartzen duguna adostu eta erasoei aurre egiteko estrategiak garatu; eta espazio bat sortu zaintzeko, maitatzeko, errespetatzeko eta entzuteko.



Antolatzailea: Emekumeen Etxea Elkarte

INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAREN ALDEKO EMAKUMEAK

Eguna: osteguna

Ordua: 16:30 - 18:30

Hasiera: urtarrilaren erdialdean

Iraupena: ikasturte osoa

Hizkuntza: gaztelania



Indarkeria matxistari aurre egiten dioten edo aurre egin izan dioten emakumeak taldean elkartzeko gunea.

Astean behin biltzen dira (joatea libre da). Autolaguntza taldea da. Askatzeko hainbat modu baliatuta, indarkeriari irtenbideak bilatzen laguntzen du. Emakumeek beldurrak, isolamendua, tristeziak eta kulpak partekatzen dituzte haien artean, eta barnean duten indarrarekin konektatzen saiatzen dira, indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko: zer gertatzen zaien jakin, pozarekin konektatu, nork bere gorputza zaindu, desirekin duten harremana ezagutu eta taldearen laguntza jaso.

Antolatzailea: Donostiako Udala

JATORRI ASKOTARIKO EMAKUMEENTZAKO KULTURARTEKO GUNEA

Eguna:	asteartea
Ordua:	16:00 - 18:00
Hasiera:	urtarrilaren erdialdean
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	gaztelania



Jatorri desberdineko emakumeak taldean egoteko gunea. Astean behin biltzen dira (joatea libre da), beren bizitzan migrazioa nola bizi duten elkarrekin aztertzeko. Zailtasunetatik ikasten dute eta sozializatzen dituzte banakakoen eta taldearen lorpenak. Osasun fisikoa eta emozionala hobetzeko eta bizi diren hirian gehiago sustraitzeko tresna nahiz baliabideak bereganatzen dituzte; isolamendutik ateratzen dira; euskal gizartea eta jatorrizko gizartea, biak, ezagutzen dituzte; elkarrekin aisialdi, dibertsio eta ezagutza ekintzetan parte hartzen dute.

Antolatzailea: Donostiako Udala

DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEEN AHALDUNTZE TALDEA

Formatzailea: Rosa Ugalde Urbiztondo, ELKARTU

Eguna:	ostirala
Ordua:	11:30 - 13:30
Hasiera:	urtarrilak 10
Iraupena:	ikasturte osoa
Hizkuntza:	elebiduna

Desgaitasuna duten emakumeak elkartzeko gunea da, norbere burua ezagutu eta aitortu ahal izateko. Desgaitasuna duten emakumeek bizi duten diskriminazio bikoitzaren egoera aztertzea du xede talde honek, ahultasunari eta desparekotasunari aurre egiteko. Horretarako ezinbestekoa da beraien eskubideak ezagutzea eta horien gauzatzea sustatzea, norbanako eta taldeko ahalduntzea lantzeko bidean.



Antolatzailea: Donostiako Udala

...ETA JARRAITZEN DUTE

Talde hauek martxan jarri ziren urrian eta uda-arte jarraituko dute. Beteta daude eta izen-ematea itxita.

MEMORIAREN ZIRRIKITUAK EUSKAL LITERATURA GARAIKIDEAN

Formatzailea: Iratxe Retolaza

VENTANERAS

Formatzailea: Mertxe Tranche

VENTANERAS - LA PRECUELA

Formatzailea: Mertxe Tranche

IRAKURLE ESKOLA FEMINISTAS

Formatzailea: Iratxe Retolaza

ANTZERKI LABORATEGI FEMINISTA

Formatzailea: Iratxe Retolaza

BATUKADA FEMINISTA

Formatzaileak: Ainara Sarasketa eta Arantxa Vicedo

EDERLEZI ABESBATZA

Formatzailea: Bettina Aragon

XAKEA

Formatzaileak: Eli Agirre eta Leire Cruz

KLOWNA

Formatzailea: Bea Egizabal

Arreta eta Bideraketa

Informazioa, orientabidea eta harrera Emakumeen Exeko bertako balibideetara edo kanpokoetara bideratzea.

Egilea:
Emakumeen Etxeko bertako langileak

Astelehenetik ostiralera
10:00 – 21:00
Hitzordurik gabe

Ordenagailu eta Internet zerbitzua

Astean Zehar.
Doako erabilera.

Ordutegia:
10:00 - 21:00

Etxeko Langileentzako Aholkularitza

Honako gaien inguruko aholkularitza: eskubideak eta betebeharrak, soldatak, kontratu motak, oporrak, egun eta ordu libreak, kotizazioak, baimenak, kaleratzeak... inguruko aholkularitza.

Egilea:
Ana Lopez eta Juana Aranguren

Astelehena
16:30 - 18:30
Hitzorduarekin

Aholkularitza Juridikoa eta Gizarte Esku-Hartzea

Espetxe eta zigor zuzenbidea.
Atzerritartasuna.
Lanerako zuzenbidea.
Genero indarkeria.
Hirugarren adina: erretiroa, pentsioa, alar-guntasuna... Tramiteak egiteko laguntza.

Egilea:
Arrats Elkartea

Asteazkena
16:00 - 18:00
Hitzorduarekin

ZERBITZUAK

Hitzordua eskatu ahal izango duzue telefono honetan



943 48 34 70

Lege Aholkularitza

Famili zuzenbidea, lanerako zuzenbidea, atzerritartasuna, genero indarkeria.

Egilea:
Emakume Bananduen Elkartea

Asteazkena
19:00 - 21:00
Hitzorduarekin

Gizarte Aholkularitza

Gizarte laguntzei buruzko informazioa behar duzu? Etxebizitza? Enplegua edo formazioa?

Egilea:
Rosa Ugalde

Asteartea
16:00 - 18:00
Hitzorduarekin

Norbanakoaren Jabekuntzarako Gunea

Aholkularitza, prebentzioa eta ahalduntzea helburutzat izanik eta metodologia elkarreragileaz baliatuz, norberaren indarretan oinarritutako baliabideak lortuko dira.

Egilea:
Maite Santamaria

Asteazkena
10:00 - 13:00
Hitzorduarekin

Biluzik Mundura

Sexualitate informazioa eta aholkularitza zerbitzua.

Egilea:
LAHIA 3.0

Astelehena
17:00 - 20:00
Hitzorduarekin

Sare sozialetan:

 @lahia3.0

Aholkularitza, Laguntza Taldea

Errotutako jarrerak eta erruduntasun sentimenduak landu nahiz aldatzeko. Indarkeriari aurre egin eta autonomia areagotzeko.

Asteartea, hamabostero
14:30 -16:00
Hitzorduarekin

“Iguálate” Ikasketen Homologazioa

Atzerrian egindako ikasketen tituloak balioztatzeko aholkularitza eta laguntza.

Egilea:
Bidez Bidez

Osteguna
10:00 - 12:00
Hitzorduarekin



Asociación Casa de las Mujeres



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Berdintasuna
Igualdad



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusia
Berdintasun Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Igualdad

+ INFO

Helbidea:

Okendo 9, 20004 Donostia

Telefonoa:

943 48 34 70

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera
10:00 - 21:00

E-mail:

info@donostiakoemakumeenetxea.com
berdintasuna@donostia.eus

Web:

donostiakoemakumeenetxea.com